


## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eramateko honako baliabide hauek behar eta erabiliko ditugu:


Baliabide fisikoei dagokionez, kamioia, ileapaindegiko materiala eta produktuak funtzezkoak dira zerbitzua bezeroei emateko. Kamioia gure logoarekin eta kolore deigarriekin apainduko dugu, arreta deitzeko eta jendeak erakartzeko, eta barrualdean ileapaindegiko gauzeekin egongo da dekoratuta. Beste aldetik, produktuak Maybelline kosmetika-markaren eta L'Oréal-marka ospetsuaren produktuak izango dira. Bi markarekin lan egingo dugu modu eksklusibo batean oso kalitate onekoak direlako eta azken finean horixe da gure bezeroei eskaini nahi dieguna. Gainera haien produktuak erabiltzeagatik, haiek merkeago salduko dizkigute, azken finean, guk haien bi markak bultzatzen eta jendeari erakusten ari garelako.



Baliabide intelektualetan ezinbesteko garrantzia dute gidatzeko lizentzia, ileapaindegian beharrezkoak diren jakintzak eta esperientzia. Horrela, bezeroak eroso eta seguru senti daitezke gure kamioaren barruan.



Giza baliabidei begiratzuz, bakoitza zeregin ezberdin bat izango du. Ane ile-apaintzailea izango da eta ileapaindegian beharrezkoak diren jakintzak eta esperientziak izango ditu. Nerea kamioia gidatuko du, gidatzeko lizentzia daukalako eta seguru joango garelako. Harreragile Erika egingo da, beti bezeroarekin atsegina izango da tratuarekin pozik egon daitezen. Eta, azkenik, teknikaria Yaiza izango da, horretan espezializatuta dago, eta makinaren bat hausten bada, arazorik gabe konpondu ahal izango du.



Finantza-baliabideak ezinbestekoak izango dira hasierako inbertsio-proiektua abian jartzeko. Horiek erabakitzen dute enpresa batek inbertitu eta hedatu dezakeen

